

MAHAI JOKOA

Izenburua: 'Bizi-birzi'. **Egilea:** Luditoys. **Edukia:** Hondakinen, energiaren, kontsumo arduratsuaren, ingurumenaren eta berrerabilpenaren inguruko 300 galdera txartel, 20 proba txartel eta 20 zorte txartel daude. **Adina:** 8 urtetik gorakoentzat. **Prezioa:** 29 euro. **Argitaratzailea:** Luditoys.

ematean, jokia amaitzen da. Orduan, jokalaria bakoitzak familia edo kolore bakoitzeko zenbat fitxa dituen zenbatuko da. Fitxa bakoitzeko puntu bat izango du.

Noiz joan daiteke jokalaria garbigunera?

Garbigunera sartu ahal izateko, more koloreko laukian erori behar du jokalaria. Behin hara sartuta, barrura sartu, eta hustu ahal izango ditu pilatutako fitxak. Familia bakoitzeko fitxa bat duen jokalaria sartu ahala fitxa guztiak utzi eta irten ahal izango du. Bestela, fitxa guztiak hustu arte garbigunera bueltara ibili behar du.

Nolako galderak dira?

Hondakinen, energiaren, kontsumo arduratsuaren eta ingurumenaren ingurukoak dira egiten diren galdera guztiak. Txartel batzuk galdera bat egiten dute, eta hainbat erantzun ematen dituzte aukeran. Badira, ordea, proba jakin batzuk egiteko eskatzen duten txarteltxoak ere. Proba horiek eguneroko ohituren ingurukoak dira. Azkenik, txartel zortedunak daude. Azken horietan, fitxak oparitu edo kentzen zaizkie jokalariei.

Bego Zuza
ARGITALPEN ARDURADUNA

«Eguneroko ohituren inguruan pentsatzea eta hitz egitea nahi dugu»

Herritar bakoitzak hondakin ugari sortzen ditu, egunero-egunero. Hondakin bakoitza dagokion lekura botaz gero, baina, beste erabilpen bat eman ahal diogu. Azken batean, herritarren esku dago hondakinari kolorea ematea, bizi berri bat ematea. Keinu txiki batek hondakinaren etorkizuna zenbat alda dezakeen ikusteko jokia da *Bizi-birzi*.

Hondakinen inguruko jokia da. Zer erakutsi nahi izan duzue jokoarekin?


Heziketaren ikuspegitik, hondakinen gaiari heltzea proposatzen zaie haur, gazte eta helduei. Hondakinek kolorea dutela erakutsi nahi izan dugu; birziklatu eta berriro erabiliz gero, beste erabilpen bat eman ahal diegula erakutsi nahi izan dugu. Sortzen dugun hondakina nora botatzen dugun, uste baino garrantzitsuagoa da. Harrigarria da, benetan, hondakina alde batera edo bestera botatzeak produktu edo hondakin hori zenbat alda dezakeen. Eskuarekin egiten dugun keinu horrek uste baino garrantzi handiagoa duela ikustea nahi dugu.

Nola sortu zen jokia sortzeko ideia?

Lantaldean oso jende sentibera elkartu gara. Gertutik bizi izan dugu hondakinen afera, eta asko landu dugun gaia da hondakinena. Hala, modu ludiko eta didaktiko batean, hondakinen inguruan hausnartzeko jokia edo denbora-pasa argitaratzea erabaki genuen.

Jokorako taula berezia da: biribila. Zerbait adierazi nahi izan duzue horrekin?

Bai, nahita egin dugu biribila. Aurrez aipatu dugun ideia azpimarratu nahi izan dugu horrekin: hondakinei beste erabilpen bat eman ahal zaiela. Gauzak ez direla linealak, hau da, ez direla erosi, erabili eta bota; baizik eta behin produktua erosi edo lortu eta erabili ostean, beste erabilpen bat eman ahal zaiela. Hala, produktua berriro erabiliz, etorkizun bat eman ahal zaio. Zirkulu hori irudikatzen saiatu gara, jokoaren taularen bidez.

**Nola jolasten da?**

Bost peoi daude, eta bakoitzak abiapuntu bat du. Handik abiatuta, ibilbide bat egin behar du jokalariek. Bost koloretako laukiz osaturik dago ibilbidea: urdina (papera), horia (ontzi arinak), grisa (errefusa), berdea (beira) eta marroia (organikoa). Abiapuntutik abiatuta, dadoak adieraziko dio jokalariei zenbat lauki egin behar dituen aurrera. Lauki bakoitzean hondakinen inguruko galdera bati erantzun behar dio jokalariek. Asmatzen badu, erori den laukiarren koloreko fitxa irabaziko du. Tarteke, garbigunera edo taularen erdira hurreratu behar du jokalaria, lortutako fitxak hustera. Han, pilatu ditugun hondakinak hustu egin behar dira, hondakin bakoitzari dagokion tratamendua emateko. Jokalaria batek buelta osoa

Jolasteko eta ikasteko aukera ematen du jokia.

Modu dibertigarri batean, hondakinek kolorea dutela eta beste erabilpen bat eman ahal zaiela erakutsi nahi izan dugu. Galderen eta proben bidez hondakinen inguruan eta eguneroko ohituren inguruan pentsatzea, hausnartzea eta hitz egitea nahi dugu; hain barneratuta ditugun ohiturei buruz bider pentsatzea. Hondakinen arduradun nagusia kontsumitzailea bera dela ikusarazi nahi diegu jokalariei; azken batean, nor bere esku dagoela hondakinei zein irtenbide eman, eta nor bere esku dagoela gauzak modu batera edo bestera egitea. Gauzak ongi egiteak bere ondorioak dituela eta zuzenean jasotzen ditugula erakutsi nahi diegu. Arduratsuak izateak zer ondorio dituen ikusarazi nahi dugu.